



❖ MAIATZAK 1- LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA BIHAR

Krisia ardatz, sindikatuen manifestuetan

Sindikatuak bi multzotan banatuta egin dituzte manifestuak: ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRUK batetik; eta CCOO eta UGTk bestetik.

LANGILEEN Nazioarteko Eguna da bihar, eta Euskal Herrian ordezkariak duten zortzi sindikatuak manifestua plazaratu dute. ELA, LAB, STEE-EILAS eta HIRUK batera egin dute, eta diote, helburua aberastasuna justuki banatzea dela: «gure ustez, politikarekin posible da lanaren eta aberastasunaren banaketa justuan oinarritzen den eredu ekonomikoa eta soziala bultzatzea». CCOO eta UGTk ere batera egin dute manifestua, eta diote langabezia gainditzea eta lana sortzea dela euren helburua. /2



Nafar eta Biteri kaleak, bizilagunek aparkatzeko

UDALAK arautu du Nafar, Biteri eta Izpizua kaleetako aparkatze sistema. Lehenengo biak, Nafar eta Biteri kaleak gune gorriak izango dira, eta bertako bizilagunek bakarrik izango dute bertan aparkatzea. Izpizua kalea berri, gune urdina izango da, eta orain arte Atzietan erabili den sistema jarriko da martxan. 08:00etatik 20:00etara ordu-betez aparkatu ahal izango da; eta 20:00etatik 08:00etara, eta larunbat eta jaiegunetan, bizilagunentzat izango da. /3

❖ MENDI LASTERKETAK

Ibai Alba Mendaroko lasterketan izango da bihar, podiumean sartzeko asmoarekin

Orain hiru urte hasi zen asfaltoko lasterketetan parte hartzen Ibai Alba hernaniarra, eta ordutik asko dira irabazi dituen lasterketak. Orain Mendi Lasterketetan hasi da, eta bihar Mendarokoan hartuko du parte. Helburua, podiumean sartzea izango du. /6

❖ GOIZ EGUZKI

Abesbatzaren emanaldia gaur, Maiatzaren 1a ospatzeko

Goiz Eguzkiko abesbatzak emanaldia eskainiko du gaur, egoitzan, 19:30etan. Gaurko kontzertua, eta biharko antolatuta dituen ekitaldiak, Maiatzaren 1a ospatzeko izango dira. /2

❖ 'GURASO.COM'

Gurasoen premiak asetzeko, webgune berria martxan

Gurasoei zuzendutako webgunea jarri dute martxan Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Txatxilipurdi elkarteak: guraso.com. /8

GAUR KRONIKAN

Laburrak /2-3-8

Kirolak: Erremontea, txirrindularitza eta plater tiroa /2

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI



RENOVE PLANA

HOZKAILUA A+
Eve planaren deskontuarekin

205€ -tik
aurrera

GARBIGAILUA A+
6Kg. - 1000rpm
Eve planaren deskontuarekin

185€ -tik
aurrera



Telefono finkoaren alta
DOHAINIK

Ekarri lagun bat
movistarrera eta
goza ezazu
6 hilabetez
100x1



Pack-ak **19'00€** -tik aurrera

MAIATZAK 1 - LANGILEEN NAZIOARTEKO EGUNA

Krisiari aurre egitea, sindikatuek Maiatzaren 1erako duten aldarrikapen nagusia

ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRUK batera egin dute manifestua, eta bihar Bilbon, goizeko 11:30etan egingo den manifestaziorako deia egin dute. CCOO eta UGTk ere, elkarrekin egin dute Maiatzaren 1eko manifestua.

KRISIA izango da protagonista bihar, Langileen Nazioarteko Egunean, sindikatuek egingo duten manifestuan. Batetik, ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta Hiru sindikatuek egin dute batera, eta bestetik CCOO eta UGTk. Guztiek, krisiari aurre egiteko hartu beharreko erabakiak dituzte ardatz.

ELA, LAB, STEE/EILAS,
EHNE eta HIRU:
«**Helburua aberastasuna
justuki banatzea da**»

ELA, LAB, STEE/EILAS, EHNE eta HIRUK manifestuan azaldu dutenez, egungoa, azken hamarkadetan ezagutu dugun politikarik latz eta antisozialena da:

«erreforma laboralak, pentsioen erreformak, eta orain negoziaketa kolektiboaren erreformek lan baldintzak gehiago desarautzea baino ez dute ekarri. Guk bada-kigu bestelako politika bat burutzea posible dela, eta beharrezkoa dela. Hau da, lanaren eta aberastasunaren banaketa justuan oinarritutako eredu ekonomiko eta soziala bultzatuko duen politika posible dela.

Sei sindikatuen esanetan, gaur egun egiten ari diren politika aldatzeko neurri batzuk hartu behar dira, helburu izango dutenak aberastasuna justuki banatzea, eta langileek bere posizioa hobetzea eta aurrera eramatea. Horretarako aldatibak proposatzen dituzte:

«1. Enpleguak defendatzeko politika: enplegu egonkor eta kalitatezkoa bermatu behar da. Lan baldintzak hobetu, aldi baterako kontratuen iruzurra desagerrarazi...

2. Politika fiskal justu eta progresiboa behar da. Zerga bilketa hobetu behar da, gizartegastu haundiagoa ahalbidezeko. Errenta altuenei oparitu zaizkien zerga jaitsierak bertan behera utzi behar dira.

3. Gizarte gastua eta sektore publikoa ezin dira ekonomiatik erretiratu. Garapen ekonomiko eta sozialaren motorra izan behar dute.

4. Ekimen politiko, ekonomiko eta soziala bultzatzea posible da Hego Euskal Herrian.

Badaukagu behar besteko bultzada, determinazioa eta jendartearen babes. Egungo esparru politikoa langileen kontrako erabakiak hartzeko erabiltzen ari dira, eta hala salatu genuen martxoaren 22an sinatu genuen adierazpenean»

Hori guztia aldarrikatzeko sei sindikatuek manifestazioa egingo dute bihar Bilbon. Goizeko 11:30etan izango da, eta dei egin diete hernaniar guztiei bertara hurbildu eta bat egitera.

CCOO eta UGT:
«**Langabezia gainditzea da borroka, eta lana helburua**»
CCOO eta UGT sindikatuek egingako manifestuan azaldu

dute, Estatuko egoera oso larria dela, eta lan egonkorra sortzea dela helburuetako bat: «Euskal Herrian 151.000 pertsona daude langabezian, eta joan den urteko erreformak ez du ezertarako balio izan».

Horrez gain, diote, krisiari aurre egiteko, hazkundera, eredu iraunkor eta jasangarrian oinarritu behar dela, berrikuntza eta industria ardatz izango dituen.

Azkenik, exijitzen dute Estatuak sistema finantzieroei ematen dizkien laguntza guztiek baldintzak izatea; hau da, bankuek familiei, langile autonomoei, eta enpresariei likidezia ematea. II

MAIATZAK 1 - GOIZ EGUZKIKO FESTA

Abesbatzaren kontzertua gaur, eta festa bihar, Maiatzak 1a ospatzeko

Abesbatzaren emanaldia urteko inportanteenetakoa da bazkideentzat; 19:30etan hasiko da.

GOIZ Eguzkin Maiatzaren 1a ospatuko dute gaur eta bihar, urteroko moduan.

Gaurko ekitaldi bakarra antolatu dute, abesbatzaren emanaldia. Arratsaldeko 19:30etan hasiko da Goiz Eguzkiko egoitzan, eta 12 abestiko kontzertua eskainiko dute, hurrengo kantekin: *Txakolin*, *Zoron-*

go, *Goizeko izarra*, *Maitia nun zira*, *Euskararen garra*, *Un viejo amor*, *Azken dantza*, *Signum*, *Hegoak*, *Xalbadorren heriotza*, *Zazpiak oihal batetik* eta *Euskalerriko*.

Meza, sari banaketak eta luntxa, egunean bertan
Bihar, egunean bertan, goiz osoko festa izango dute Goiz

Eguzkira hurbiltzen direnek. Aurreneko orduan, 09:00etan, bazkideek meza izango dute Agustinetan, hildako bazkideen alde. Ondoren, 11:00etan, sari banaketa egingo dute udaberrian zehar egin dituzten txapelketenak. Eta festa egunari bukaera emateko, ohizkoa bihurtu den luntxa antolatu dute. II

❖ KONTZERTUA

‘**Su ta gar**’ taldeak joko du gaur

Kontrakantxan, eta oraindik sarrerak daude

Su ta gar taldea bertatik bertara ikusi eta entzuteko aukera izango da gaur Kontrakantxa gaztetxean. Gazte Asanbladak antolatuta, kontzertua eskainiko dute, gaueko 22:30etatik aurrera. Emanaldira joan nahi dutenak oraindik garaiz dira sarrerak erosteko: Goiz Argi, Garin eta Ekosen daude salgai, 8 euroan. II

❖ BIGARREN ESKUKO AZOKA

Bigarren eskuko produktuak jarriko dituzte aukeran gaur, Atsegindegin

Atsegindegin bigarren eskuko azoka jarriko dute gaur, goizeko 10:30etatik eguerdiko 13:30etara. Gaurkoan ere, bigarren eskuko produktu ugari izango dira aukeran: arropa, pitxiak, etxeko tresnak, liburuak... II

❖ GAZTE ASANBLADA

Hernaniko eta Astigarragako

Gazte Asanbladak ‘Finlandia’ saioan gaur, ETB 1en


Finlandia saioan aterako dira gaur Hernaniko eta Astigarragako Gazte Asanbladak. Martxoaren 30ean grabatu zuten saioa Landaren, eta bertan, erremontea eta errugbia uztartu zituzten. Irabazlea zein izan zen jakin nahi duenak, *Finlandia* saioan ikus dezake gaur gauean. II

❖ SANTA BARBARA - MUS TXAPELKETA

Repeskako partidak, astelehen eta asteazkenean

Santa Barbarako mus txapelketan repeskako partidak jokatuko dira astelehen eta asteazkenean. Astelehenean jokatuko diren lau partidak ondorengoak dira: Mauri-Txanpi/Teo-Txuso, Txema-Naos/Xabier-Satur, Bitxo-Valero/Amenabar-Peli, eta Petto-Axi/Erice-Paco. II

ETXEBERRIA
Sagardotegia



☎ 943 55 56 97 / 670 533 542
Sagardotegi Zeharra, 5 20115 ASTIGARRAGA

ETXEBERRIA SAGARDOTEGIAK
GURE BEZERO ETA LAGUNEI
JAKINARAZTEN DIZUEGU

GAUR, LARUNBATA, 20:30ETAN
TRIKITIAFARIA !!
TRIKITILARIAK: IZER ETA LURTXUNDIO
MENUA: 30€

- Astelehenetik larunbatera gaez
- Larunbata eta igandea eguerdian ere bai.
- Bakailoa saltsan enkarguz.
- Jangela klimatizatua.

PRENTSA OHARRA - Izpizua, Nafar eta Biteriko aparkatze sistema

Aparkatzeko txartelaren bila, astelehenetik aurrera pasa daiteke

Izpizua kalean orduko sistema jarriko dute martxan; eta Biteri eta Nafar kalean sistema gorria, bizilagunentzat bakarrik dena.

MUGIKORTASUN Iraunkorren Plana onartu berri du Udalak, eta bertan, oinezkoek lehenetasuna izatea da helburua. Horren ondorioz, herriko hainbat gunetan aparkatze sistema arautu behar izan du Udalak, eta horren berri emateko, prentsa oharra idatzi du Hernaniko Kronikara. Aparkatzeko Arautze sistema hiru kaleetan ezarri dute: Izpizuan, Nafar kalean eta Biteri kaleetan, nahiz eta bakoitzak izaera ezberdina izango duen.

Izpizua kalean, orduko sistema

Udalak azaldu du, Izpizua kalean, Atzieta kalean orain arte izandako sistema bera jarri duela, eta zonalde urdina izango dela. Hala, astelehenetik larunbatera, goizeko 08:00etatik arratsaldeko 20:00etara bertaraten direnek, gehienez, ordubetez utzi ahal izango dute kotxea Izpizuan. Gainontzeko orduetan berriz, hau da, arratsaldeko 20:00etatik goizeko 08:00etara, eta larunbat eta jaiegunetan, bertako

bizilagunek bakarrik izango dute aparkatzeko aukera: «era horretara, aparkatzeko aukera eskaintzen zaie egunez ingurura erosketak edo enkarguak egitera hurbiltzen direnei; eta gauez, eta jaiegunetan, bertakoentzako gune bihurtuko da».

Nafar eta Biteri kaleak bertako bizilagunek aparkatzeko izango dira

Nafar eta Biteri kaleak berriz, bertako bizilagunentzat bakarrik izango dira, hala azaldu dute prentsa oharraren. Bi kaleak zonalde gorria izango dira, eta aurrerantzean, bertakoek bakarrik izango dute kotxea bertan aparkatzeko aukera. Nafar kaleko zenbaki hauei eragingo die araudi berriak: 14, 16, 16A, 15, 17, 19 eta 21.

Bizilagunei deia, astelehenetik aurrera txartelak jaso ditzaten

Aldaketa horiek medio, Udalak dei egin die kale horietako bizilagunei astelehenetik aurrera udaletxera joan daitezen. Bertan, kale

horietako bizilagun gisa identifikatzen dituen agiria emango diete (autoan jartzeko pegatina). Udalak azpimarratu duenez, ageri hori laister ezinbestekoa izango da zonalde horretan aparkatzeko.

Txartel edo pegatina hori eskuratu ahal izango dute Izpizua, Nafar eta Biteri kaleetako bizilagunek, eta Urbieta kaleko bizilagun batzuek: 6, 7, 8, 10 eta 12 zenbakikoek hain zuzen. II

Eskaera egiteko aurkeztu beharreko agiriak:

- Eskatzailearen NA
- Gida baimena
- Baimena behar duen autoaren zirkulazio baimena
- Autoaren aseguru poliza eta azken erreziboa
- IAT (ITV) azterketa gainditu izanaren frogagiriaren fotokopia edo azterketa ez duela pasatu behar azaltzen duen ziurtagiria.
- Idatzi bat aurkeztu beharko da garajetik ez duela baiezatzatzen duena aipatutako hiru kale hauetan
- Behar den kasuan, txartela lortzeko tasak ordaindu izanaren ziurtagiria.

❖ ZINEFORUMA KONTRAKANTXA GAZTETXEAN

'The Maltese Falcon' ikusgai bihar, Maiatza Beltzari ekiteko

Kontrakanxa Gaztetxeko Zineforumak jarraipena izango du Maiatza Beltzarekin, hau da, hilabete honetan zine beltza izango da nagusi. Bihar emango dute lehenengo pelikula: *The Maltese Falcon* (*El halcón maltés*). Humphrey Bogart-en zine beltzeko lehenengo antzezlan da, Sam Spade detektibea antzeztan. Zine beltzaren hasiera kontsideratzen da pelikula hau. Igandero izango dira pelikulak, 19:00etan. Guztiak bertsio originalean, gaztelaraz subtitulatuta. II

❖ ASTIGARRAGA

Baratza balkoian nola egin ikasteko aukera

Astigarragan, baratza nola egin ikasteko aukera izango da Zilegi Eskolen barruan. Maiatzak 2, 9 eta 16an emango ditu azalpenak Uxo Arinek Astigarragako kultur etxean. Ordutegia: 19:00etatik 21:00etara. Izena emateko: 607 610 687. II

BIHAR AMAREN EGUNA DELA ETA
10:00-14:30 IREKITA



Publikoarentzat salmenta - Handizkako salmenta

Gizarte Enpresa Gizarte Enpresa Gizarte Enpresa Gizarte Enpresa

ORDUTEGIA: As - Or: 08:30-19:00 / Lr: 10:00-19:00

lorak
landareak kanpokoak
heskaiak barrukoak

www.erribera.com I 943 330 222

HEMEN EGINDAKO EROSKETAK SARIA DAUKA

Maiatzaren 1etik Abenduaren 31 arte prezioaren %3ko deskontua izango du BERRIAK TXARTELAREKIN ordaintzeagatik.



BERRIAK

HERNANIKO MERKATARIEN ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Datafinoa duten establezimenduak:

EZKERRO FRUTAK
AITOR PEÑA FRUTA DENDA
JAIONE KONJELATUAK
URRATS OINETAKOAK
IRIGOIEN OINETAKOAK
ALKORTA HARATEGIA
BIGMAT ARICETA
IBAI-MENDI
NEKANE ESTETIKA
ARROSAS ESTETIKA
ALAIA ODONTOLOGI ZENTROA
PELISIMO
URUMEA BURDINDEGIA
J.A. TORRES ARGAZKIAK
ARROBI OSTATUA
ON BIT INFORMATIKA
BALANTXA DVD 24 ORDU
AURKI ESKULANAK
HAIZEA KORTSETEGIA
HOKI LENTZERIA

APAIN
FELY MODA ETA ETXEA
VALEN
ILAZKI
KERA
AMEGAR ETXE TRESNAK
BALANTXA ETXE TRESNAK
KULUSKA
AAREGI ALTZARIAK
BIOKBI OPTIKA
EZKATI ILEAPAINDEGIA
AMAIA ARANDEGIA
HERNANI MARISKOAK
GALERIAS BUEN PRECIO
DISDIRA
OIHALA
EDER TAPIZERIAK
HERNANI BIDAIK
MARNA KONPLEMENDUAK
KAIXO POLTSAK ETA KONPLEMENDUAK

Udaberriko Zizak eta onttoak protagonista, osteguneko ferian

Ostegunean, ohi bezala, feria izan zen Hernanin. Garaiko produktuak erosteko aukera izan zen eta horien artean nabarmendu ziren Udaberriko Zizak eta onttoak. Mikel Lasaren postuan izan ziren aukeran. Zizak dagoeneko, 30 eurora jaitsi dira. Eta erosi bakarrik ez, probatzeko aukera ere izan zen Karlos Ezeiza sukaldariak prestatuta.

HERNANIKO ostegunetako feria erreferentea da inguruko herri askotan. Lasarte, Urnieta, Andoain, Donostia, Arano, Goizueta... txoko ezberdinetako jendea etorzen da Hernanira. Gipuzkoa osoan egun guztiko mugimendua duen azoka bakarra da eta gazte dexente biltzen dituen. Inguruko herrietan erreferentea den azoka; eta azokan bertan, erreferente: Mikel Lasa hernaniarra eta bere postua, besteak beste.

Urte guztian ezaguna da izaten duen gazta aukera zabalagatik eta sasoi bakoitzean, garaiko produktuak izateagatik, hala nola, babarrunak, hurrak, intxaurrak, ehiza (Hernanin debekatua)... Eta bereziki, perretxikoak. Euskal Herrian gutxi izango dira bera adina perretxiku saldu dutenak. Martxoan hasi ziren euskaldunok hain preziatuak ditugun lehenengo Udaberriko Zizak ateratzen. Onttoak ere hasiak dira, eta hutsik egin gabe, biak osteguneko ferian izan ziren Lasaren postuan. Gainera, oso prezio eskuragarri. Udaberriko Ziza, kilo 120-180 euroan egon zen hasieran eta ostegunean jada, 30 euroan eskuratu zitekeen. Onttoa ere 28 euroan izan zen erosgai. Lasaren esanetan, «merkaturan ugaritu ahal, jaisten joango dira prezioak eta bai zizak bai ondokoak 20 eurora jaitsiko dira».

Udaberriko Zizak probatzeko aukera
- Hartzerik bada?



Jendeak gustora asko hartu zituen Mikel Lasak probatzeko emandako Udaberriko Zizak, osteguneko ferian.

«Batzuk feriara etorri eta saltzen hasten dira. Guk saltzen hasterako, agian bi ordu pasatzen ditugu prestatzen. Produktuak ekartzeko ere aurretik prestatu egin behar da. Lana egin behar da, beste sekreturik ez dauka».

- Bai, bai, horretarako daude!
Probatu, probatu, zizak dira.
- Mmm...
Horixe guztien erantzuna eta batzuen: jarri kilo bat!

Lasaren postuan, Udaberriko Zizak probatzeko auke-

ra izan zen ostegunean. Karlos Ezeiza sukaldariak prestatu zituen rebueltoan. Lehenengo aldia da Hernanin egiten dutela, baina beste feriatan egin izan dute; Gasteizen, esaterako. Oreretan ere, onttoak

promozionatzeko askotan egiten dute. Lasak dio eragina izaten duela bezeroarengan. «Baina produktu guztiekin. Zuk jartzen baduzu gaur gazta mota bat probatzeko eta hurrengoan beste zerbait, eragina du. Jendea aukera ematen diozu ezagutzeko zein produktu daukazun. Hori bai, denbora hartu behar da».

Bere postuaren arrakastaren sekretuaz galdetuta, gauza bera nabarmendu du: denbora hartzea eta lantzea.

«Adibidez, batzuk feriara etorri eta saltzen hasten dira. Guk saltzen hasterako, agian 2 ordu pasatzen ditugu prestatzen. Produktuak ekartzeko ere aurretik prestatu egin behar da. Lana egin behar da, beste sekreturik ez dauka. Eta gero, jendea ahal den hoberen tratatu».

Zizek, Gasteizen arrakasta
Feriaz feria, herriz herri ibiltzen da Mikel Lasa. Batez ere, Gipuzkoan: Ordizia, Tolosa,

leiholux
LEIHOAK, PERTSIANAK ETA ITXITURAK.

“RENOVE” PLANA
% 10 deskontua
(Promozioa Apirilak 30 arte)

Ez utzi aukera pasatzen !!
www.leiholux.net 943 29 09 09

Pol. Belartza
Gurutzei, 15 - Pab. A-3
20018 Donostia

ZATOZ !!


artola
sagardotegia

Oialume dantzalekutik gora

943 55 72 96
637 035 679

Santiomendi - Astigarraga

IRRIGOENEA OKINDEGIA

EGUNEROKO OGI BEROA

GAZTELOKO PASTELAK eta TARTAK ENKARGUZ
OPIL ETA PASTA BIKAINAK

BARIETATE HAUNDIA INTEGRALETAN:

OJALDREZKO PALMERAK
KURASAN ZEREALDUNA
MADALENAK
OGI INTEGRAL HAZIDUNA

ETA ASKOZ GEHIAGO !!

sulabe

Lizeaga I (Portalez kanpo) telf. 943 33 17 25
HERNANI



Karlos Ezeiza sukaldariak prestatu zituen mokaduak. Rebuttoa egin zuen Udaberriko Zizekin.

Arrasate, Hernani... Eta udaberrian, apirila, maiatza eta ekainean, Gasteizen ere bai. Bihar, berriz, Zuazo de Cuartangon (Araba) izango dira Txekorren eta perretxikoaren ferian.

Perretxikoei dagokienean, Gasteiz da Udaberriko Ziza gehien saltzen den plaza. 200kg saldu dituzte aste honetan, San Prudentzioren bueltan; eta Ordizian asteazkenean, Artzai Eguna medio, 100kg. «Hernanin, berriz, 10kg saltzea exitoa litzateke», dio. Jende asko biltzailea dela eta, horrek eragina izan deza keela uste du. Dena dela, orokorrean, Hernaniko azoka mugimendu haundiko azoka dela dio, «erreferentea inguruko herrietan, eta zaindu eta bultzatu beharrekoa». Hernanin gazte dexente ibiltzen da; hala ere, bereziki horiek animatu nahi ditu Lasak, azokara eroatera joateko.

Sasoiak zer diren ikasteko
Gazteei azokara joateko dei eginenez, sasoiak zer diren eta garai bakoitzean zein produktu izaten den jakiteko eta ikasteko modua dela dio Lasak. «Sasoiak galtzen ari dira eta kulpia denok dugu. Lehen Sanjosetan izaten zen letxuga. Ilarra eta baba orain dira. Tomatea ere laster hasiko da. Hemendik aurrera hasiko dira barazki gehienak eta frutak. Negukoak ere badaude; baina gaur egun urte guztian dugu dena». ■

Mikel Lasak odolean daramaki saltzaile sena. Ikasten jarraitzeko gogorik ez eta 16 urterekin aitaren ondoan hasi zen lanean, feriaz feria. 28 urte daramazki eta ez da inoiz erabakitakoaz damutu.

«Gustatu egiten zait leku batetik bestera ibiltzea, dendan ito egingo nintzateke»

«SEI urterekin jada, aitari enbarazu egitera joaten ginen», gogoratzen du Mikel Lasak. Eta ofizialki esateko, 16 urterekin hasi zen feriaz feria aitaren ondoan lanean. «Ikasten jarraitzeko gogorik ez nuen. Aitak bazuen gogoia nik ikasten jarraitu nezan, baina ez zuen lortu. Lau urte ere pasa nituen internoan fraileekin, baina berdin jarraitu nuen eta fraileek esan zioten aitari dirua eta denbora galtzen ari zela; lan egin nahi nuela. Kurtsoa ostiralean bukatu eta larunbatean lanean hasi nintzen», kontatzen du.

Ordutik 28 urte daramazki feriatan lanean eta erabaki hartaz inoiz ez dela damutu aitortu du. «Batzuentzat gogorra izango da, baina ni ohituta nago eta gustatu egiten zait. Denda jartzekotan ere izan ginen, baina nik ez dut nahi. Beti leku batean... nahiago dut herriz herri ibili. Beste saltsa bat da. Dendan ito egingo nintzateke».

«Azoka asko aldatu da»

Urte guzti hauetan, azoka asko aldatu dela azaldu du Lasak. «Esaterako, nire aitak-eta, (entzuten badit haserretu egingo da) ez zuten saltzen; hau da, jendeak erosi egiten zien. Beraiek iristerako, jendea jada zain egoten zen. Oso ezberdina zen. Zergatik? Lehen ez zegoen hainbeste denda, hainbeste aukera. Hori bai, lana egiten zuten. Nire aita ezagutu dut Bretxan, 30 metroko ilara zain zuela arrautzak erosteko. Etengabe saltzen zituen arrautzak.



Joxe Ramon eta Mikel Lasak, aita-sembleak. Onttoak eta Udaberriko Zizak izan ziren protagonista, baina Joxe Ramonek etxean egindako sagardoak ere izan zuen merezitako errekonozimendua.

«Nire aita ezagutu dut Bretxan 30 metroko ilara zain zuela arrautzak erosteko. Orduan, 2.000 dozena saldu izan genituen goiz batean».

zak. Egunean saltzen zituen guk urte guztian saltzen ditugun arrautzak baino gehiago. 2.000 dozena saldu izan ditugu goiz batean. Orain beste modu bateko lana dago atzean eta nire amak, adibidez, ez du ulertzen postua jarri eta produktuak probatzeko eskaintzea. Gastu bezala ikusten du.

Aldatu egin da».

Aita, 10 urterekin hasia

Nabari da Mikel Lasak maisu haundi bat izan duela aldamean. Halaxe da Joxe Ramon Lasak, aita, esperientzia haundiko saltzailea. 5 urte zituela, amarekin ibiltzen zen ferian eta 10 urte besterik ez zituenean bakarrik hasi zen, ama gaixo zegoela eta. «73 urte dauzkat orain, atera kontuak!», dio.

Osteguneko ferian, semearen postuan izan zen eta berak etxean, Santa Barbaran, egindako sagardoa eraman zuen. Probatzeko aukera izan zuten bertaratutakoek, baita Kronikako kazetariak ere. *Earra!* ■

Perretxikoez gain, ilarra, baba eta marrubia, ferian

Urteko sasoi honetan, perretxikoak dira protagonista, eta horien artean, Udaberriko Zizak eta onttoak. Baina ez dira bakarrak. Barazki eta fruta berri gehienak maiatza-ekaina ingurutik aurrera hasiko badira ere, dagoeneko ilarra, baba eta marrubiez gozatzeko aukera dugu. Osteguneko ferian izan zen erosteko aukera.

Esan bezala, maiatza-ekaina ingurutik aurrera hasiko dira barazki eta fruta berriak ateratzen. Orain, landatzeko garaia da eta hori nabaritu zen ostegunean, Hernanin. Sekulako ilarak sortu ziren landare ezberdinak erosteko orduan. Aukeran ziren: tipulak, azelgak, tomateak, porruak, letxuga ezberdinak, pepinoa, kalabazina, piper ezberdinak, kalabaza...

Horrez gain, ez ziren falta izan barkutaria, gaztak, bakailua, gozoa, arropa, ebaxerako tresnak... Datorren ostegunean ere izango da aukera goizetik arratsaldera, Urbieta kalean.

Zenbait prezio:

Garaikoak

Udaberriko ziza: 30euro/kg; onttoa: 28euro/kg; hemengo ilarra: 10-11euro/kg; hemengo baba txikia: 3,50-4,50euro/kg; hemengo baba: 2,50-3euro/kg; Huelvako marrubia: 4,50euro/kg; marrubia: 2,50-3,65euro/kg.

Gaztak

Ardi-gazta berria 11,50-17euro/kg, zaharra 16,50-24euro/kg; behi-gazta 8,90-13euro/kg; gazta nahasia 12-13euro/kg; ahuntz gazta 13-15euro/kg.

Barazkiak

Ilarra: 3,95/kg; baba: 1,95/kg; hemengo babarrun beltza: 10-12euro/kg; hemengo babarrun zuria: 8-10euro/kg; babarrun beltza: 5,75/kg; tomatea: 1,98-3,55/kg; Tuterako alkaxofa: 1,95-2,95euro/dozena; letxuga: 1,98euro/3 buru; baina: 1,50-2,95euro/kg; padron piperra: 3.90/kg.

Frutak

Hemengo intxaurra 3-5euro/kg; hemengo hurra 2,5-3/kg; hemengo Errezil sagarra 1-4 euro/kg; piña 1,75-2,50euro/kg; udarea 0,99-2,50euro/kg; Kiwia 2,50-3,50euro/kg; Errege sagarra 0.99/kg; mandarina 1,99/kg; Golden sagarra 0,99-1,65euro/kg; naranja 0.99-1,25euro/kg; meloia 2,95/kg; gereziak 9,50/kg; pikukak 4,75/kg.

pelisimo
FOTODEPILAZIO AURRERATUA
94 333 18 10
Ebatzi azazu zure gorputzako edozein ataleko ila fotodepilazio berriarekin sistema honekin. Sistema berria, erraza, minik gabekoa eta eraginkorra.
Kardaberaz kalea, 35
www.pelisimo.com

- Bizkarra - izondoak - hanka 1/2 -
- besoak - azalek -
UNISEX
Bono eskaintza:
5 saio + 1 opari (150€)
10 saio + 2 opari (300€)
- Aurrezki fotogaztetres
Eta gainera: - Aldearen tratamendua
- Aurrezki orbanen ezabaketa

ezkati
ileapaindegia
Iturregi, 4
Hernani
943 55 65 56
Hartu ordua

IRUBIDE JATETXEA
Enkarguzko janak
Gordetako jantokia
Eguneko menua
Asteburuko menua
Karta
IRUBIDE Jatetxea - Epele auzoa 7 - Hernani - ☎ 943 552 480

MENDI LASTERKETAK - IBAI ALBA

Korrika asfaltotik mendira, eta esprint batean, punta-puntara

Ibai Alba atleta hernaniarra 2008tik asfaltoko lasterketetan parte hartzen hasi zenetik, lasterketa bat baino gehiago irabazia da. Aurtengo martxoan, berriz, Mendi Lasterketetan hasi da korrika eta oso emaitza onak lortzen ari da. Beran esaterako, 12garren egin zuen. Igandero ikusi dezakegu lasterketaren batean, eta bihar, Mendaron izango da podiumean sartzeko asmoz.



Ibai Alba, Mendi Lasterketak korritzen hasiberria da eta emaitza oso onak lortzen ari da.

«TODOTERRENO bat naiz», hala definitzen du bere burua Ibai Alba atleta hernaniarra; ondo definitu ere. Orain arte asfaltoko lasterketetan aritu bada ere, martxotik aurrera, Mendi Lasterketetan dabil buru-belarri. «Larraul-Ernioko lasterketa izan zen lehenengoa eta ordutik *engantxatuta* nago», azaldu dio Kronikari. Larunbatetan ezin izaten du lasterketetan parte hartu, lana dela medio, baina igandero ikusi dezakegu lasterketaren batean. Bihar esaterako, Mendaron izango da eta podiumean sartzeko du helburu. «Lasterketa berria da eta ez dut uste maila oso altua izango denik».

Alba, Mendi Lasterketetan hasiberria bada ere, erakutsi duen maila ez da nolanahikoa izan: Ernion 5garren egin zuen, Saran 8garren, Orion 7garren eta Beran 12garren. Gustora dago emaitzekin,

batez ere, Beran lortutakoarekin. «Beran maila haundia izaten da eta lortutako emaitza sekulakoa dela esan didate».

Jaistea, kosta

Emaitza onak lortu arren, oraindik hobetzeko asko gertzen zaiola azaldu du Albak: «Orain arte ez nintzen inoiz ibili mendian eta teknikoki oso ezberdina da. Batez ere jaistea kostatzen zait. Gora ondo moldatzen naiz, baina behera, 100m-tan bakarrik, sekulako aldea ateratzen didate».

Entrenatu bere kasa egiten du atleta hernaniarra, astean sei egunetan. Larunbatetan jai egiten du normalean, karrera aurreko eguna izaki. Ereñotzu aldera joaten da korrika egitera; 30km inguru egiten ditu denera. Datu bat aipatzearren, iaz 4.300km egin zituen korrika, lasterketa eta entrenamenduen artean.

Irailean, asfaltora berriz

Alba, uztailaren 10era arte ibiliko da Mendi Lasterketetan eta irailean helduko dio berriz asfaltoari. Aurten, besteak beste, Maratoian 2:30eko denbora egitea du helburu.

Todoterreno izaki, ultra trailak probatzeko gogorik baduen galdetuta, baietz dio, baina lanagatik, denbora falta duela.

Hiru urte emankor

Alba 2008an hasi zen asfaltoko lasterketetan parte hartzen. «Azeri Bilan atera nintzen eta ordutik jarraitu egin dut. Aurretik, 21 urtera arte, txirrindularitzan ibili nintzen eta gero, 6 bat urtez, kirola utzita egon nintzen», azaldu du.

Hiru urte hauetan lortu dituen emaitzak oso onak izan dira. Euskal Herrian eta Estatu mailan hainbat lasterketa irabazi ditu eta iaz, esaterako, Zumaiako Zakilabiran 4garren

izan zen; Euskadiko Maratoi Erdian 7garren, 1:11:29ko denborekin; Kirolprobak Ligan bigarren; eta Donostiako Maratoian erbi lanak egin zituen. Horrez gain, Albak Ordiziako Txindoki taldearekin korritzen du asfaltoan (mendian Idiazabal taldearekin) eta Euskadiko txapeldun izan ziren iaz.

«Udalak hemengo taldea bultzatu beharko luke»

Hernaniko atleten artean maila altua dago bai asfaltoan, bai mendian. Asfaltoan, Sergio Roman, Ibai Alba eta Eduardo Gallego dabilta punta-puntan. Eta mendian, Zigor Iturrieta, Unai Santamaria eta Ibai Alba bera. Baina gehienak Hernaniko taldetik kanpo dabilta. Horri lotuta, honakoa azaldu du Albak: «Hernanin 10 bat korrikalari badira maila altukoak eta pena da bakoitza punta batean ibiltzea. Udalak hemengo taldea gehiago bultzatu beharko luke».

Arratzuko eta Mendaroko Mendi Lasterketak, gaur eta bihar:

Arratzuko Mendi Lasterketa (30km):	Mendaroko Mendi Lasterketa (25km):
-Zigor Iturrieta	- Ibai Alba
-Unai Santamaria	- Aitor Arluziaga
-Jokin Etxabe	- Ines Arreitunandia
	- Patxi Artola

Apirileko emaitzak:

Aginagako Mendi Lasterketa:	
11 Unai Santamaria	37 Aitor Arluziaga
18 Mikel Etxabe	51 Mikel Etxabe
33 Mikel Iturbe	59 David Truyo
76 Patxi Artola	67 Aitor Zudaire
105 Ekaitz Zubelzu	90 Mikel Iturbe
145 Aitor Ormazabal	93 Iñigo Uzkudun
146 Koro Astiz	210 Aingeru Santa.
174 Fernando Etxezarreta	228 Ruben Paredes
	235 Josean Arzelus
	241 Ines Arreitun.
	261 Martxel Rodrigo
	295 Josema Gonzal.
	319 Gonzalo Saved.
	404 Iñaki Azurmen.
Orioko Mendi Lasterketa:	
5 Unai Santamaria	
7 Ibai Alba	
83 Patxi Artola	
148 Iker Persona	
160 Mikel Uralde	
224 Xanti Aduriz	
Donostiako Hondarribia Mendi Lasterketa:	
19 Sergio Uzkudun	
Berako Mendi Lasterketa:	
	12 Ibai Alba
	15 Unai Santamaria
	147 Mikel Etxabe
	152 Urtzi Fernand.
	272 Jokin Etxabe
	276 Patxi Artola
	364 Mikel Uralde

◆ ERREMONTA - UDABERRIKO TORNEOA

Lehenengo finalerdia bi partidutara, gaur eta bihar

Igandean erabakiko dira Udaberriko Torneo Mixtoko lehenengo finalistak zein izango diren: Matxin III-Urrutia I edo Urtasun-Etxeberria III. Finalerdia bi partidutara izango da eta gaur jokatu dute lehenengo Galarretan, 16:30etan. Bihar izango da bueltako partidua Irurritako frontoi motzean, 17:30etan. Matxin III eta Urrutia I Galarretan ahaileginduko dira aldea ateratzen, Urtasun eta Etxeberria III Iruritan arriskutsuak izango direla aurreikusten baita. Urtasun bihar, etxean ariko da eta gainera espezialista da frontoi motzean. ■

◆ PLATER TIROA

Foso Unibertsaleko tiraldia, gaur

Foso Unibertsaleko tiraldia jokatu dute gaur Santa Barbaran. Txantxan-gorri elkarteko Erregularitate Torneoak bigarren tiraldia izango da. Partehartzaileek naranja koloreko 25 plater puskatu beharko dituzte. Izen ematea 10:30etatik 11:30etara izango da, Santa Barbaran bertan. Izen emateak 12 euro balio du. ■

◆ JOCC ZIKUÑAKO AMA

Eskola Kirola:

Alebinek Donostialdeko Txapelketako lasterketa dute gaur, Lezon

JOCC Zikuñako Amako alebinek lasterketa dute gaur Lezon, Donostialdeko Txapelketaren barruan. Lasterketa 16:30etan hasiko da. ■

Zikloturista Taldea:

Goizuetara irteera, bihar

JOCC Zikuñako Ama zikloturista taldeak Goizuetara egingo du denboraldiko bederatzigarren irteera, bihar. 51,4 kilometro egingo dituzte. Hitzordua goizeko 08:00etan jarri dute, Zinkoenean. ■

**FUNERARIA
ORBEGOZO**
ERRAUSKETAK

24 orduko tfnoa.
943 33 10 20

www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
- Beilatokiak.
- Errausketak.
- Lekualdatzeak.
- Eskelak, koroak ...

Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · ORIO · LASARTE · ERRENTERIA



GIZA eta GIZARTE ZIENTZIAK



ikasgaiak

Euskera eta Literatura
Gaztelania eta Literatura
Atzerriko Hizkuntza: ingelesa
Filosofia eta hiritartasuna
Gorputz Hezkuntza

Mundu garaikideko zientziak
Gizarte zientzia aplikatutako
matematika
Latina
Ekonomia
Mundu garaikidearen historia
Euskal Herriko historia
XX. mendeko Euskal eta Espainiako literatura
Arteak
Geografia
IKT
2. Atzerriko Hizkuntza
Psikologia eta soziologia

matrikula zaitez Hernani Institutuan



AURREMATRIKULAZIOA

- Zientziak eta Teknologia batxilergoa
- Giza eta Gizarte Zientziak Batxilergoa

Maiatzak 2 - Maiatzak 11 (biak barne)

09:00 - 14:00 egunero eta


16:00 - 18:00 astelehen eta asteazkena

www.hernanibhi.com

TELEFONAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622
● Autobusak: Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
● FARMAZIAK ● Egunez: Odriozola URNIETA - Idiazabal, 18 - 943 334014 ● Ganez: Aizpuru Latsunbeberri 11 - 943 336077

EGURALDIA
GAUR Hego ukituko haizearekin tenperaturak gora egingo du pixka bat eta lainoak ugaritu egingo dira, batez ere arratsalde partean. Min.13° / Max.21°.
BIHAR Zeruak lainotuta jarraituko du eta zaparradaren bat bota dezake, bereziki arratsaldean. Tenperaturak antzera jarraituko du. Min.13° / Max.20°.

KRONIKA



❖ 'GURASO.COM' EGITASMOA

'Guraso.com', gurasoen zalantzak eta premiak asetzeko

Adituek eta profesionalak landutako albiste eta artikulu berriak daude egunero gai ezberdinen inguruan: aisialdia, aitalasuna, amatasuna, aspektu legalak, elikadura, euskera, gazteria, hezkuntza, kirola...

GURASO.COM egitasmoa jarri berri dute martxan Goiena Komunikazio Zerbitzuak eta Txatxilipurdi elkarteak. Web orri horretan, gurasoek, izan ditzaketen zalantza eta premiak asetzeko aukera dute. Bertan, informazio espezifikoak aurkituko dute, euskera hutsean.

Egitasmoaren nondik-norakoa hala azaldu dute sortzaileek: «*guraso.com* egitasmoa bizi dugun garaiotako ondorio zuzena da: amatasuna eta aitalasuna egungo gure gizarte berdinago honetara ekartzeko saioa, askotarikoak baitira guraso berriek topatuko dituzten arazoak seme-alaben hazkuntzan ustezko xamurtasunaren orde, estresa barra-barra dabilen gizarte honetan: haurdunaldi eta erditze zailak, haurtzaindegiak gainezka, lana eta gurasotasuna ezin erama-



Haur txikien elikadurari buruzko azalpenak ematen ditu Amaia Diaz de Monasteriogurenek.

tea, heziketaren joera berritzaileak, bikote banaketaren alternatiba mingarria, guraso adinduxeak ugaritzea, sexu-bazterketa sentitzea... Premia horri erantzun nahian, baliabide egoiak bilduko dituen web gunea sortzeko apustua egin dugu».

20 profesional lanean

Web gunean, egunero daude albiste eta artikulu berriak, pro-

Web gunea 8 ataletan banatua dago informazioa errazteko.

fesionalek landuta. 20 profesional daude lanean gai ezberdinen inguruko informazioa emateko; hala nola: aisialdia, aitalasuna, amatasuna, aspektu legalak, elikadura, euskera, gazteria, guraso mintegia, hezkuntza, jolasak, kirola, logopedia, pedagogia, pediatria, podologia, prebentzioa, psikologia, psikomotritizitatea, sexualitatea eta teknologia berriak.

Web gunearen atalak, berriaz, 8 dira: sarrera, kolaborazioak, guraso berriak, seme-alabak, guraso eskola, aisialdia, baliabideak eta albisteak. Zalantzak argitzeko eta informazio gehiagorako: guraso.com. II

❖ ZINEA

'The fighter' ikusgai helduentzat, gaur eta bihar

The fighter pelikula izango da ikusgai Biterin, helduentzat. Benetako istorio batean oinarritutako pelikula da. Micky Ward "Irlandarra" boxeolaria eta bere anaiordea Dicky Eklund-en bizipenetan oinarritua dago. Gaur 19:30etan eta 22:30etan izango da ikusgai eta bihar 19:30etan. II

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Pisua salgai Santa Barbaran, aukera bikaina (ikusteko pisua) eta tratu aukera haundiak. Deitu: 659 787 634.

Komertzial lanetarako pertsona bat behar dugu. Baloratuko dira euskaraz jakitea eta telekomunikazioetako salmentan eskarmentua izatea. Bidali mesedez curriculum unai@logikaline.com helbidera, edo deitu 943318600 telefonora (Unai, 09:00-17:30)

Etxean erreformak egin nahi dituzu eta ez dakizu nola? Deitu: 660 765 152.

Enara Goikoetxea. Sendabide energetikoa, Kristaloterapia, Obsidiana masajea, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 649-700-762. (Agustindarren plaza 4)

ETXEKO KONPONKETAK egiten dira: iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.

YOLANDA ESETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzietza 2, behea. Tel. 943 55 32 78.

Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalen garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebrala, reflexologia, auriculoterapia... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

CERCADOS Y PUERTAS SARELAN

Sistemas de Cerramiento perimetral y ocultación

AENOR 12 años a su servicio, liderando el mercado.

Empresa Registrada ER-1636/2007

recuerda! ahora estamos en... www.sarelan.com

c/ Troya, 14 - 2 • Pol. Txalaka, Araneder • 20115 Ergobia

670 440 939
943 555 779

Askaezazu irudimena zure DISEINATU

TITULAZIO OFIZIALAK

ERDI ETA GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK DISEINU GRAFIKOAN



Heriz Pasealekua 95 • 20008 Donostia • Gipuzkoa • 943 310 873 • www.ceinpro.es



Ereñozu Auzoa, 68 - 69
20120 HERNANI
943 550 031
fagollaga@fagollaga.com
www.fagollaga.com

Oporretatik bueltatu gara eta gure MENU BEREZIAK dastatzera gonbidatzen zaitugu.!



MENU BEREZIAK

35'00€ / 42'00€